# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3824

*885/2012 EBAZPENA, uztailaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bitartez, M. Carmen Inmaculada Sánchez Martin andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko Zuzendariorde izendatzen baita.*

Aztertu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko Zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza honen maiatzaren 15eko 628/2012 Ebazpenaren bidez egin zen, eta 2012ko ekainaren 14ko EHAAn argitaratu zen (234. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituena giriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, M. Carmen Inmaculada Sánchez Martín andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko Zuzendariorde izendatzea M. Carmen Inmaculada Sánchez Martín andrea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaio egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.